
KONDAIREA

LEGE ZA e AK

BEREZITASUNA

Bizkai'ko foruak beste lurralde batzutakoen antzekoak dirala esan dabe batzuk.

Baiña, egia esan, gure Lege Zarren berezitasuna, euren sorburuan dago.

Lege Zarrak ez dira goitik arturiko eskubidea, ez legegille batek emona, erriak ber-berak egiña baiño.

Bizkaitarren erri-eskubideak, erriak eukazan ekandu ta oituretatik berez sortuak dira.

IDAZPENA

Ekandu orreik agiri idatzietan agertu ziran gero.

1343'garren urtean Gernika'n egindako Batzarrean, lenengo agiri idatzi oneik D. Juan Nuñez de Lara'k eta onen emazte zan D.^a Maria'k egin ebezan.

Lenengo forua esaten jaken agiri orrei, baiña ez ondo, bere 37 azalburuak zigor-legeak ziran eta larra ta mendiai dagokiezanak baiño ez. Ez zan ba, Lege Zar guztien kopurua.

GAIZTAKERIAREN AURKA

Berrogei ta amaika urte geroago, 1394'an, Bizkai'tarrak Ermandadearen forua esaten jakona egin eben.

Lapur eta gaizkileentzat egiña zala eta foruak ez zirala, zigor-legeak baiño, diño Areitio'k.

Foruak eurak, egiz aske ziranak, ez euken zerikusirik araudi oneikin. Esan dogunez, gaiztakeria aldentuteko ta bake-baretasuna Bizkai'ko jau sartzeko ziran.

1394'an, baita, Enkarterriko forua Abellana'da'ko batzarrean ontzat artua izan zan.

Jado ta Ezkartza'ren eritxiz, foru onek ez dauka kondairazko agerpen baten balioa baiño, eta, orrez gaiñera, Bizkai'ko Foru Barria argitaratu zanetik, 1526, ezereztu egin zan.

FORU ZARRA (Lenengo Forua)

1452'ko bagillaren 2'an Foru Zarra esaten jakona, Batzar Nagusian onartu eben. Oneri nainkoa zioz esan leio Bizkai'ko Lenengo Forua, erriko ekandu ta oiturak, guztiak izan ez arren, bertan datoz-eta.

Tamalez, ez daukagu euron aldaketa edo biridatzirik.


Baiña Foru Zar onek ez eukan eregitasun aundirik: Alde batetik, beteten ez ziran alperriko legeak sartzen ziran eta bestetik betetan ziran legeak, naita idatzita egon, ez ziran sartzen.

FORU BARRIA

Orregaitik, 1506'en Foru Zarra barriztu gura izan eben, baiña asmo au ez zan bete 1525'era arte.

Alan be, Foru Barriaz berba egin baiño len, aitatu dagigun «Chinchilla»ren araudia.

Onetzaz zerbait jakiteko, lenengo auxe esan bear dogu: Ez dala Batzar Nagusietan egiña edo emona, Bilbo uriko udalean baiño.



Foru Barriaz Bizkai'ko legegintzaren gorengo unera eltzen gara.

1526 urteko jorrailaren 5'ean izan zan.

ONARTZEA

Batzarrean bazkideak onelan adierazo eben Foru Barri onen onartzea:

«Foru Zarra bakerik ez zuzentasunik ez egoan aldietan idatzia zala eta gure jaunerrian orain beste jakitun eta auzi-ikasi batzuk dagozela ikusirik, eta Foru orretan orain bearrezko ez diran gauzak idatzi zirala ta gaur erabilten ez diranak dirala jakiñik, lurralde onen bake ta zuzentasunerako bear-bearrekoak diranak ez dagozela oar

AMALAU GIZON

Zio edo errazoi orregaitik, amalau gizon izendatu ebezan, ordezkariak buru zirala, ekanduak, oiturak, askatasun-bideak, eskubideak eta zerga idatzi ta idatzia ikustatu ta aztertu egiezan.

Batzarrak Bilbo-uritik at izaten ziran, Martin Saez de la Naja'ren etxean.

Egunean bitan batzen ziran, goizetan seiretatik amarretara, arratsaldeetan ordu batetatik bos-tetara, guztiz egunean zortzi ordu.

LEGE ZAR ONEN BIZIA

Foru Barri au España'ko Lege-Araudiak ontzat artu eban 1889 urtean.

Beronen iraunaldia, 1959'ra eta, urte onetako dagonillaren 21'era artekoa izan zan.

Lareun eta ogei ta amairu urteko bizia izan eban.

Ogei ta amasei atzalburu eukazan.

Amar biclar irarria izan da, azkenengoz Areito'ren itz-aurreaz Aldundiak babestu ta zainduta.

LETONA'k